

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdialdea

DATA: 2015/11/26

Saila	Laburpena	Erantzuna
Alkatetza	Ego Gaineko auzokide batek eskatu du irtenbidea emateko ibaiak tunelean sartzean egiten duen zaratari; ur-jauzi bat dago, bere ustez txikiagotu daitekeena.	Araudiak ez du ur-zarata zaratatzen hartzen, naturala baita, nahiz eta ur-jauzia aldatuta egon. Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa da, Uraren Euskal Agentziarena, hain zuzen ere.
Alkatetza	Bista Eder kaleko auzokide batek salatu du trenaren gurpilek ateratzen duten kirrinka San Andres pasealekutik pasatzean. Konpontzeko neurriak hartzeko eskatu du. Gaineratu du gauzez makina batek zarata handia egiten duela.	Euskal Trenbide Sareari eskatu zaio aspertsoreak jartzeko trenbideetan, busteko eta gurpilek ateratzen duten kirrinka gutxitzeko.
Alkatetza	Barria plazako 2 zenbakian bizi den pertsona batek eskatu du bere etxearen aurrean dauden zabor-educiontzia leku aldatzeko.	Azterlan bat egin dugu edukiontzi berdeak ezkerreko aldera pasatzeko. Zaborra biltzeko kamioien ezaugarriak aztertu dira. Edukiontziak eskuinaldean baldin badaude, kamioak —albotik kargatzekoa dena— 3.200 litroko edukiontziak jasotzen ditu. Edukiontziak ezkerrean jartzen baldin badira, kamioiak atzetik kargatzekoa izan beharko luke, eta horrek beharko luke bi langile izatera edukiontzi —1.000 litrokoa— atzeko partean jartzen dutenak, gero altxatua izateko. Arrazoi hori dela-eta, eskuinaldeko bi edukiontziren edukiera berdintzeko —guztira, 6.400 litro— sei edukiontzi beharko lirateke ezkerrean.
Alkatetza	Batek galdetu du ea, behin Errekaxuko hirigintzako plana geldituta, eraiki behar diren auzora iristeko eskailera mekanikoak Bidebarrietatik.	Azterlan bat enkargatzeko konpromisoa hartzen dugu.
Alkatetza	Batek salatu du Julian Etxeberria kaleko Tas-Tas tabernak behin eta berriz hausten duela ixteko ordutegia.	Udaltzaingoa tabernak ixteko ordutegiaren segimendua egiten ari da. Tas-Tas tabernak irekita dauka ixteko ordutegiaren inguruko espedientea

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdialdea

DATA: 2015/11/26

Saila	Laburpena	Erantzuna
Alkatetza	Eskatu du Julian Etxebarria kaleko 3. zenbakiko etxartean dauden hiru aparkalekuak kentzeko, ekiditeko, horrela, jendeak bertan txiza egitea.	Aparkalekuak kentzeak ez du ekiditen jendeak etxartean txiza egitea. Mankomunitateak ingurua mahukarekin garbitzeko agindua dauka.
Alkatetza	Toribio Etxebarria kaleko auzokide bat kexatu da kaleko artisten musika dela-eta.	Aztertzen ari gara
Alkatetza	Eskatu dute Toribio Etxebarriako terrazen ordutegia betetarazteko.	Terrazen ordenantza aldatu da; bertan jasotzen dira terrazak jartzeko baimendutako ordutegiak.
Alkatetza	Eskatu dute, Coliseoan ekitaldi bat dagoenean, ateak ekitaldia hasi baino lehenago irekitzeko.	Emanaldiak zuzenean direnean, txarteldegia irekitzeko ordutegia parte-hartuko duen taldearen antolakuntzaren arabera izaten da, entsaiatzen ari diren eta dena prest duten. Hala ere, era horretako ekitaldietarako sarrerak zenbakituak izaten dira. Helduentzako zineari dagokionez, txarteldegia ordu erdi lehenago irekitzen da.
Alkatetza	Errebaleko proiektuaren gaineko informazioa eskatu du batek.	Informazio hori (epeak, aurrekontuak, diseinua...) herritarraren esku dago Udalaren web-orriko Kontratatzailearen profila atalean eta Obra Sailean.
Alkatetza	Bat kexatu da San Andres Pasealekuko 3. zenbakian uso gehiegi dagoelako.	Albaitariak esan digu Eibarren 200 uso inguru daudela; horietatik 150 inguru kendu egiten dira urtero, uso kopurua kontrolatuta edukitzeko.
Alkatetza	Komertzio batzuek hondakin organikoak zabor normalerako edukiontzietan uzten dituztela jakinarazi du batek.	Komertzioak ohartarazi dira, edukiontzia behar bezala erabil ditzaten.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdialdea

DATA: 2015/11/26

Saila	Laburpena	Erantzuna
Alkatetza	Eskatu du pedalez funtzionatzen duten edukiontzi marroiak ipintzeko, egungoak deserosoak dira-eta.	Aztertzen ari gara
Hirigintza	Batek eskatu du konpontzeko Ego Gain 3ko horma bat, eraikina eraitsi ondoren gelditu dena.	Udaleko teknikariek ikuskapena egin ondoren, agindu bat igorri zaie Ego Gain 3ko orubearen jabeei. Arazoa konponduta dagoela egiaztatu dugu.
Obrak	Julian Etxeberria 3ko etxarteko espaloia konpontzeko eskatu du. Auzokideak dioenez, oso zaharra da.	Aurten konponduko da espaloia.
Obrak	Bista Ederren bizi den auzokide batek eskatu du irispide mekanikoa eraikitzeko Fermin Calbeton kaletik, Leo tabernaren ondotik.	Ez dago aurreikusita irispide mekanikoak eraikitzea inguru horretan. Aurreragoko jarduketetan aztertuko da.
Udaltzaingoa	Portalea inguruan bigarren ilaran aparkatuta egoten diren kotxeengatik kexatu da. Eskatu du kale osoa zirkulazio-noranzko bakarrekoa izatea.	Ahal den neurrian kontrolatzen da kotxeak bigarren ilaran aparkatzea. Kasu gehienetan, udaltzainak iristen direnean, gidariek kendu egiten dute autoa.
Udaltzaingoa	Batek salatu du Bista Eder kalean DIA supermerkatuko zamalanek eragiten duten zarata edukiontziekin.	Gune horretako auzozainak hitz egin du DIA supermerkatuko arduradunarekin, kexaren berri emateko.
Udaltzaingoa	Bat kexatu da Bista Eder kaleko Boulevard taberna pareko espaloiko zikinkeriatatik. Eskatu du tabernako arduradunak garbi dezala bertako bezeroek zikintzen duten espaloia.	Gune horretako auzozainak hitz egin du tabernako arduradunarekin, kexaren berri emateko eta espaloia garbitzeko eskatzeko.
Udaltzaingoa	Zera salatu du: gauean, jendeak txiza egiten du Errebal parkingeko horman.	Udaltzainei agindu zaie Eibarko kaleetan txiza egiten dutenak identifikatzen ahalegintzeko.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdialdea

DATA: 2015/11/26

Saila	Laburpena	Erantzuna
Udaltzaingoa	Bat kexatu da jendeak txiza egiten duelako Ardantza inguruan.	Udaltzainei agindu zaie Eibarko kaleetan txiza egiten dutenak identifikatzen ahalegintzeko.
Udaltzaingoa	Batek ohartarazi du jendeak txiza egiten duela Zezen Bideko 2. zenbakian.	Udaltzainei agindu zaie Eibarko kaleetan txiza egiten dutenak identifikatzen ahalegintzeko.
Udaltzaingoa	Zezen Biden grafitiak daudelako kexa adierazi du batek.	Ezin izan dira aurkitu Zezen Biden grafitiak egiten dituzten pertsonak.
Udaltzaingoa	Batek salatu du, Isasiko Xok tabernako atea zabalik uzten dela-eta, tabernako musikak eta zaratak bizilagunak esnatzen dituztela.	Ostalaritzako establezimendu batek atea zabalik dituela eta zarata kanpora iristen dela ikusten denean, arduraduna ohartarazten da eta atea ixteko agintzen zaio.
Udaltzaingoa	San Juan kaleko ezker aldeko aparkalekuaren inguruan galdetu du batek, eta baita zamalanetarako dauden alternatibei buruz ere.	Gehitu egin dira inguruko komertzioei zerbitzua emateko zamalanerako eremuak.
Udaltzaingoa	Salatu du Toribio Etxebarria kaleko Ez Dok tabernako gaueko zarata; izan ere, atea zabalik izaten dituzte.	Gaueko txandakoek zaintzen dute ostalaritza establezimenduek atea itxita edukitzea, zarata ez dadin kanpora atera. Ateak zabalik dauzkatela ikusten denean, arduraduna ohartarazten da eta ixteko agintzen zaio.
Udaltzaingoa	Batek salatu du kamioiak Ego Gaineko parke ingurura sartzen direla zamalanak egitera.	Oztopo-zutoinak jarri dira sarbidean, eta agenteek inguru horretan aparkatzea debekatzeko agindua daukate; baita isuna jartzeko ere.
Udaltzaingoa	Bat kexatu da paperaren edukiontzitik kanpo kartoia gelditzen dela beti, baita edukiontzia hutsik dagoenean ere.	Ordu-tegi batzuen barruan, baimenduta dago kartoia lagatzea edukiontzitik kanpo. Establezimenduek kanpoan utzi behar dituzte, edukiontziak ez daitezela larregi bete.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdialdea

DATA: 2015/11/26

Saila	Laburpena	Erantzuna
		Mankomunitatekoak egunean bi aldiz pasatzen dira kartoiak jasotzera, eguerdian 14:00etatik aurrera eta, arratsaldean, 20:00etatik aurrera. Kartoiak atera behar dira beti ordutegi horiek kontuan hartuta.
Udaltzaingoa	Batek salatu du jendeak txiza egiten duela Fermin Calbeton 6ko eskaileretan.	Kontua da egoera horiek kontrolatzea. Pertsona bat txiza egiten ikusten denean, salatu egin behar da.
Udaltzaingoa	Batek eskatu du autobusen ordutegiak Untzaga plazan jartzeko.	Jarri dira.
Zerbitzuak	Errebaleko obrak hasten direnean, kaleko azoka Errebal inguruan kokatzea proposatu du batek.	Errebaleko azoka txikirako hainbat kokaleku aztertu ondoren, pentsatu da lekurik onena Txaltxa Zelai-Eibarko Txikito dela, eta han jartzen da obrak hasi zirenetik.
Zerbitzuak	Jakinarazi dute hainbat luminariak gaizki funtzionatzen dutela Blas Etxebarria eta Arragueta Zeharra kaleetan	LED argiak jarri dira eta ingurua osatu da Hiri Debekatuaren Maparen arabera. El Casco eraikinaren zamalanetarako gunean ere jarri da argia; han lehen ez zegoen-eta.
Zerbitzuak	Bat kexatu da kale-garbitzaileen haize-makinek ateratzen duten zaratagatik igandeetan goizeko 7:30ean. Eskatu du beranduago hasi daitezela erabiltzen.	Arazo hau dela-eta, esan behar da badirela bateragarri ez diren ekintzak. Ezin da beranduago hasi eta gero eragozpenik ez sortzea kalean dabilenari; kontua da lehentasunak markatzea. Gauza jakina da Eibarren, beste herri batzuen aldean, kale-garbitzeta berandu egiten dela (7:30ean hasten da); horrela egin ezean, bizilagunak kexatu egiten dira-eta.
Zerbitzuak	Batek eskatu du garbi eta txukun edukitzeko Bidebarrieta eta Julian Etxebarria kaleen arteko izkinan dagoen lorategi txikia.	Lan-agindua egin da, lorategi horretan mantentze- eta garbiketalaran egiteko.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdialdea

DATA: 2015/11/26

Saila	Laburpena	Erantzuna
Zerbitzuak	Untzagako dorreko auzokide batek (Calbeton, 5) jakinarazi du hezetasun-arazoak dituztela, dorrearen albo bateko eskaileretan —Fermin Calbeton kaletik Eibarko Txikitora doazen eskaileretan— jatorria dutenak.	Ur-filtrazioek eragindako arazoak tramitatzen dira prozedura espezifikoki bati jarraituz. Prozedura horren bitartez, espediente bat irikitzen da arazoari irtenbidea emateko. Eibarko Txikitora igotzeko eskaileretan dagoen euri-uren kutxatila oinarririk gabe zegoen eta ur asko pasatzen da azpitik. Horrek filtrazioak eragiten ditu. Lehenengo urrats gisa, H2O enpresak kutxatila konpondu eta hobetu du, baina oraindik ez da arazoa konpondu. Jarraipena egiten ari gara, ikusteko zein irtenbide eman ahal zaion.